

“INGURUMEN
JARDUKETARAKO
SOZIE TATE PUBLIKOA,
IHOBE S.A.” PERTSONA
BAKARREKO SOZIE TATE
ANONIMOREN
ESTATUTUAK



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

“INGURUMEN JARDUKETARAKO SOZIETATE PUBLIKOA, IHOBE S.A.” PERTSONA BAKARREKO SOZETATE ANONIMOREN ESTATUTUAK

(Erredakzio finkatua)

I.- TITULUA. – IZENA, HELBURUA ETA IRAUPENA

1. Artikulua.- IZENA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Sozietatearen izena Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe, S.A. izango da.

2.- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 24.6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe, S.A. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta beraren mende dauden gainerako erakunde autonomoen eta gainerako erakunde bitarteko propio instrumentala eta zerbitzu teknikoa da. Hori da bere izaera.

Sozietatearen kapital osoa titulartasun publikokoa izango da, eta sozietateak bitarteko propio eta zerbitzu teknikotzat duten erakundeekin gauzatuko du bere jardueraren zati nagusia.

Autonomia Erkidegoko sailek eta sozietatea bitarteko propio eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeek beraren helburu sozialarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak eta beste edozein jarduera agindu ahal izango dizkiote sozietateari, betiere ahal administratiboan erabilera berekin ekartzen ez badute.

Sozietatea behartuta egongo da agindua ematen duen sail edo erakundeak agintzen dizkion lanak egitera, sail edo erakunde horrek bere kabuz ezarritako jarraibideen arabera. Lan horiek dagozkien kudeaketa-aginduaren bidez enkargatuko dira.

Aipatutako kudeaketa-aginduek izaera instrumentala dute, ez kontratu-izaera; beraz, ondorio guztietarako, barneko eta mendeko izaera dute. Sozietateak nahitaez gauzatu beharko ditu agindu horiek, eta nahikotasun ekonomiko-finantzarioko irizpideez ezarritako tarifen arabera ordainduko dira; tarifa horiek ezarriko dituzte sozietatea atxikita duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailaren arau organikoek ezartzen duten organoek. Gainera, sozietatea bitarteko propio eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeek era parte hartuko dute.

Bitarteko instrumental propio eta zerbitzu tekniko gisa sozietateari agintzen zaizkion nahitaezko jarduerak proiektu, txosten edo bestelako agiri teknikoetan definituko dira, kasu bakoitzari dagokionaren arabera, eta dagokien aurrekontuan baloratuko dira, ezarritako tarifen arabera.

Bitarteko propio instrumental eta zerbitzu teknikoa izateagatik, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe, S.A.k ezin izango du parte hartu bitarteko propietzat duten erakundeek deitzen dituzten lizitazio publikoetan; dena dela, lizitatzailerik ez dagoenean, lizitazioaren xede den prestazioa agindu dakioke.

2. Artikulua.- HELBIDEA

- 1.- Sozietateak Bilbo hirian izango du bere helbidea, Urkixo Zumarkalearen 36. zenbakian, 6. solairuan.
- 2.- Administrazio Kontseiluak sozietatearen helbidea aldatu ahal izango du Bilboko udalerraren baitan. Batzar Nagusiari dagokio helbide soziala hiri horretatik kanpora eramatea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografikoaren baitan.
- 3.- Administrazio Kontseiluak era guztietako bulego, lantoki, instalazio industrial, biltegi, sukurtsal, agenzia edo sozietatearen ordezkariak ireki, lekuz aldatu, eraldatu edo ezabatu ahal izango ditu, edozein lekutan, eta haien eskumenak, eginkizuna eta funtzionamendua arautu ahal izango ditu.

3. Artikulua.- SOZIETATEAREN HELBURUA

- 1.- Sozietatearen helburua hauxe izango da:
 - a) Ingurumenaren alorrean aginpidea duen Sailaren jarraibideak betez, oraingo eta etorkizuneko politika garatzen eta jasangarritasunaren kultura hedatzen laguntzea Euskal Autonomia Erkidegoan, batez ere gai hauen inguruan: klima-aldaketa, biodibertsitatea, lurzorua eta airearen kalitatea, hondakinak, ekoizpen eta kontsumo jasangarria eta hiri-ingurumena.
 - b) Ingurumenaren alorrean aginpidea duen Sailari laguntzea ingurumen-politiken diseinu eta ezarpenean, eta baita ingurumena kudeatzeko, kontrolatzeko eta lehengoratzeko jardueretan ere.
 - c) Ingurumen-ezagutza sortzea eta dibulгатzea, eta ekoberrikuntza sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoan.
 - d) Administrazio Publikoekin, enprekin eta herritarrekin kooperatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen-helburuak bultzatzen dituzten jarduerak gauzatzeko.
 - e) Erabilitako olioaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren 21.2. artikuluan aipatzen diren eginkizunak betetzea.
 - f) Ingurumenaren alorrean aginpidea duen Sailaren erakunde kolaboratzaile gisa, Sail horrek ematen dituen diru-laguntzak kudeatzeko jarduerak gauzatzea, indarrean dagoen legedia

zorrotasunez betez.

g) Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan babestearekin eta hobetzearekin zerikusia duen beste edozein jarduera.

2.- Bere helburu soziala betetzeko, Sozietatea Anonimoak operazio hauek gauzatu ahal izango ditu, beste batzuen artean:

a) Ekimen publiko edo pribatuko enpresen kapital sozialean parte hartzea, beren jarduera ingurumenarekin zerikusia badu, Eusko Jaurlaritzak aurretik baimenduz gero, eta kasu bakoitzean zehazten diren baldintzekin.

b) Hitzarmenak egitea, enpresa edo instituzio publikoekin, bere jarduera propioak edo hirugarrenen jarduerak babesteko, helburu hauei begira: garapen jasangarriaren aldeko lankidetzak, ingurumen-komunikazio eta -sentsibilizazioa, ingurumen-hezkuntza eta, oro har, ingurumena hobetzearekin zerikusia duten jarduerak.

c) Diru-laguntzak ematea, indarrean dagoen legedia zorrotasunez betez.

d) Diru-laguntzak eta bermeak eskuratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren aldetik eta beste instituzio eta erakunde publiko batzuen aldetik, eta baita sektore publiko estatal eta komunitarioaren aldetik ere.

e) Maileguak jasotzea finantza-erakunde publiko eta pribatuen aldetik.

4. Artikulua.- SOZIETATE ANONIMOAREN HASIERA ETA IRAUPENA

Sozietate Anonimoak bere eraketa egunean hasi zituen bere jarduerak eta iraupen mugagabea du, Estatutu hauen 37. artikuluan xedatutakoa baztertu gabe.

II.- TITULUA.- KAPITALA

5. Artikulua.- KAPITAL SOZIALA

1.- Kapital soziala, guztiz harpidetua eta ordaindua, bi milioi zortziehun eta berrogeita hiru mila seiehun eta hogeita bost euro eta hirurogei euro zentimo dira (2.843.625,60 euro), BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HAMAIIKA (296.211) akziotan banatua; akzio horien balio nominala bederatzi euro eta hirurogei zentimo dira (9,60 euro), klase bakarrekoak dira eta haien zenbakiak BATETIK (1) BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HAMAIIKARA (296.211) doaz, modu korrelatiboan, bi zenbaki horiek barne sartuta, eta Administrazio Kontseiluak erabakitzen

duen titulu edo dokumentuetan islatzen dira. Akzioak taloitegi-liburuetan jasoko dira.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak Sozietatean duen partaidetza ez da inoiz ere bere kapitalaren ehuneko hirurogeita zazpi baino txikiagoa izango.

3.- Sozietate honen ondorioetara, Euskal Autonomia Erkidegoaren “sektore publikoa” osatzen dutenak hauexek izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak definitzen duen eran, eta Foru edo Toki Administrazioaren edozein erakunde edo entitate.

6. Artikulua.- TITULU ANIZKOITZAK

Akzioak titulu anizkoitzez ordezkatu ahal izango dira.

7. Artikulua.- BAZKIDE IZAERA

Akzio baten edo batzuen titulartasunak bazkide izaera ematen du, eta legean eta estatutu hauetan aurreikusitako eskubide eta betebeharrak ematen dio bazkide horri.

8. Artikulua.- AKZIOEN ERREGISTRO LIBURUA

1.- Akzioen titularrak, geroago egiten diren transferentziak eta haien gainean sor litezkeen eskubide errealak, kargak edo zergak akzioen erregistro-liburuan jasoko dira idatziz, Administrazio Kontseiluaren Idazkaritzaren zaintzapean.

2.- Sozietateak artikulu honetan aipatutako erregistro-liburuan titular gisa agertzen diren pertsona fisiko edo juridikoei soilik aitortuko die bazkide izaera, eta, hortaz, horiek soilik erabili ahal izango dituzte izaera horri dagozkion eskubide aktibo eta pasiboak.

9. Artikulua.- AKZIOEN JABEKIDETZA, BAHIA ETA GOZAMENA

Akzioen jabekidetzak, bahi eta gozamen kasuetan, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. AKZIOAK “INTER-VIVOS” EGINTZEN BIDEZ ESKUALDATZEKO ASKATASUNARI EZARRITAKO MUGAK

1.- Akzio bat edo batzuk Sozietatetik kanpoko pertsoneri “inter-vivos” egintzen bidez eskualdatu nahi dizkion akziodunak bere asmoa jakinarazi beharko dio Administrazio

Kontseiluari, idatziz, eskualdaketa egin baino hirurogei egun natural lehenago.

2.- Jakinarazpenean, bazkideak adierazi beharko ditu gauzatu nahi duen operazioaren inguruabar garrantzitsuenak, eta gutxienez honako hauek:

- a).- Zer-nolako negozio juridikoa gauzatu nahi duen.
- b).- Zenbat akzio eskualdatu nahi dituen.
- c).- Zein izango den operazioaren prezioa eta, hala dagokionean, ordainketaren baldintzak.
- d).- Nori/nortzuei transmitituko zaizkion/zaizkien akzioak.

3.- Administrazio Kontseiluak jasotako jakinarazpenaren berri emango die gainerako bazkideei, idatziz.

Bidali zaien gutuna jasotzen duten egunetik kontatu beharreko hamabost egun naturaleko epean, bazkideek erabili ahal izango dute eskualdatu nahi diren akzio guztiak edo batzuk lehentasunez erosteko eskubidea, Administrazio Kontseiluari jakinarazpen bat bidaltzearen bitartez; gainera, jakinarazpen horretan adieraziko du ea ontzat ematen dituen operazioaren prezioa eta gainerako baldintzak edo erreparorik ote duen.

4.- Aurreko atalean adierazitakoaren babespean akziodunek eskatzen duten akzio kopurua eskura daudenen kopurutik gorakoa bada, akzio horiek eskatzaileen artean banatuko dira, norberak lehen zeukan akzio kopuruaren arabera hainbanatuta.

5.- Ez badago akzio horiek erosteko interesa duen akziodunik, edo eskatutako akzioen kopurua eskainitako kopurua baino txikiagoa bada, Batzar Nagusiak, ohiz kanpoko bileran, bazkideek eskatu ez dituzten akzioak erostea erabaki ahal izango du, haien berehalako amortizaziorako, libre dauden mozkin eta erreserben kontura.

6.- Administrazio Kontseiluak jakinaraziko die akzioak lehentasunez erosteko interesa duten akziodunei zenbat akzio egokitu zaizkien azkenean.

7.- Akziodunen bat edo Batzar Nagusia ez badago ados eskualdaketarako ezarritako prezioarekin, hau da, eskualdaketaren asmoa jakinarazten duen komunikazioan ezarritako prezioarekin, akzioak baloratzeari ekingo zaio. Balorapen hori Administrazio Kontseiluak egingo du, Sozietatearen egoera ekonomikoaren arabera, egoeraren inbentario/balantzetik eskuratutako datuez eta gainerako kontabilitate-dokumentazioaz baliatuz.

8.- Akzioak gainerako bazkideek edo Batzar Nagusiak erosten dituztenean, aski izango da bazkide horiek edo Batzar Nagusiak prezioa adieraztea besterentzea egiten duenari; prezio hori besterentze-jakinarazpenetik ondorioztatzen dena izango da, edo aurreko atalean aipatutako kalkuluetatik ondorioztatzen dena, lehentasunezko erosketarako aukera eskubidearen erabilerak xedetzat dituen akzioei dagokienez, artikulua honetako lehenengo

puntuak adierazitako epearen barruan, eskubide horien erabilera perfektionatuta dagoela eta akzioak bazkideari edo Sozietateari eskualdatu zaizkiola ulertu dadin.

9.- Artikulu honetako lehenengo puntuak adierazten den epea igarota, lehentasunezko erosketarako eskubidea erabiltzean interesatutako akziodunen batek ez badu jarri eskualdatzailearen eskuetan lehen eskatutako akzioei zegokien prezio zatia, orduan Administrazio Kontseiluak, Batzar Nagusiaren delegazio iraunkorrez, bost egun naturaleko ohiz kanpoko epe bat izango du, atal honetan aipatzen den epea amaitzen denetik kontatzekoa, ordaindu ez duen bazkidea ordezkatzeko eta –horrela- berak lehen eskatu zituen akzioak erosteko, libre dauden mozkin eta erreserben kontura. Hori egin bezain laster, erositako akzioak amortizatuko ditu.

Akzioak erosteko konpromisoa hartu arren horren prezioa dagokion epe barruan eskualdatzailearen esku jarri ez duen eta –hortaz- Administrazio Kontseilua lehen emandako eskubidea erabiltzera behartu duen akziodunak erantzukizuna izango du Sozietatearen aurrean bere kargura hasieran zegoen zenbatekoagatik eta horren interesengatik; interes horiek lehentasunezko erosketarako eskubidea erabiltzeko epearen amaierako egunean Espainiako Bankuak ezarrita zuen oinarrizko birdeskontu-tasaren arabera kalkulatuko dira. Gainera, Sozietateari sortutako kalteen ordaina ere gehituko da. Zenbateko horiek guztiak Sozietateak berreskuratu ahal izango ditu, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako prozedurak erabiliz; halaber, Sozietateak aipatutako zenbateko osoak berreskuratzen ez dituen bitartean, bertan behera geratuko dira zordunaren bazkide eskubideak.

10.- Akzioak dohainik eskualdatzen direnean, bazkideek, Batzar Nagusiak edo Administrazio Kontseiluak –kasuaren arabera- ez dute ezer ere ordaindu beharko lehentasunezko erosketarako eskubidea erabiltzeko.

11.- Artikulu honetako lehenengo puntuak adierazitako epea bukatzen bada ez akziodunek ez Batzar Nagusiak beren lehentasunezko erosketarako eskubidea erabili gabe, edo artikulu honetako 9. puntuak adierazitako epea bukatzen bada Administrazio Kontseiluak eskubide hori erabili gabe, edo eskubidea erabili bada eskainitako akzioen zati baten gainean, edo behar den bezala frogatuta badago akziodun guztiak eta Administrazio Kontseilua ados daudela aurreikusitako operazioa gauzatzearekin, atal honek aipatzen duen epea bukatuta ez dagoenean ere, eskualdatzaileak askatasunez besterendu ahal izango ditu akzioak, ez bada erabili lehentasunezko erosketarako eskubidea artikulu honetan aurreikusitako edozein formaren bidez.

Besterentzea eskritura publikoaren bidez formalizatu beharko da, artikulu honetako 1. puntuak aipatzen dituen jakinarazpenean adierazitako baldintza berdinetan, eta eskritura modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio Administrazio Kontseiluari, gehienez zortzi eguneko epean, eskritura egilesten den egunetik kontatuta.

12.- Akzioen besterentze-eskrituraren edukiak edo Sozietateak geroago egiten dituen ikerketak erakusten badute eskualdatutako akzioak ez direla eskualdatu artikuluko honetako 1. atalak aipatzen duen jakinarazpenean ezarritako prezioan edo baldintzetan, bestelako prezio edo baldintzetan baizik, Sozietateak eta bazkideek akzioak atzera eskuratzeko eskubide konbentzionala izango dute. Eskubide hori bazkideek edo organo sozialek erabili beharko dute, artikuluko honetako 3. eta 10. puntuen bitartean –biak barne- ezarritako modalitateen arabera.

Eskubide hori erabiltzeko epea kontatzen hasiko da Administrazio Kontseiluak besterentze-eskrituraren kopia baimendua jasotzen duen egunean, edo gertatutako irregulartasuna deskubritzen den egunetik, kasuaren arabera.

13.- Bere akzioak besterendu nahi dituen bazkidea ez badago ados Administrazio Kontseiluak artikuluko honen 7. puntuan ezarritakoaren arabera determinatzen duen prezioarekin, ezin izango du ordainketa errefusatu, ezta horren osteko akzio eskualdaketa ere, baina determinazio horren aurka erreklamatzeko eskubidea izango du, Estatutu hauetako 41. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Lehentasunezko erosketarako eskubidea erabiltzearen bidez eskuratutako akzioentzat ezarritako prezioa eskualdatzaileari ordaindu zitzaiena baino handiagoa bada, atal honetan aurreikusitako erreklamazioaren ondorioz, eskualdatzaileak eskubidea izango du prezioaren osagarria jasotzeko eskubidea erabili zuenarengandik, Espainiako Bankuaren oinarrizko birdeskontu-interesekin, lehentasunezko erosketarako eskubidea erabili zen egunaz geroztik.

Jadanik egindako transmisioak ez dira inoiz ere arrazoi horregatik deuseztatuko.

11. Artikulua.- AKZIOAK “MORTIS CAUSA” ESKUALDATZEKO ASKATASUNARI EZARRITAKO MUGAK

1.- Akzioak bazkide ez diren pertsoneri eskualdatu behar bazaizkie, “mortis causa” ondorengotzaren eraginez, onuradunek, legatadunek edo ondorengoek bazkidearen heriotza jakinarazi beharko diote Administrazio Kontseiluari, horren ondorioz eskualdatu behar diren akzioak eta horien onuradunak zein diren jakinarazteaz batera, hori guztia idatziz, ondarea banatu edo legatuak entregatu baino lehen.

2.- Sozietateak lehentasunezko erosketarako eskubidea izango du onuradun, legatadun edo oinordekoen aurrean, aurreko artikuluko 3. eta 10. bitarteko puntuetan –biak barne- ezarritako modalitateen arabera; prezioa, berriz, 7. zenbakian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

3.- Ondorengotzaren titulu unibertsal edo partikularren baten onuradunek ez badute betetzen artikuluko honetako 1. zenbakian aipatutako jakinarazpena, Sozietateak lehentasunezko erosketarako eskubidea erabili ahal izango du eskualdaketa berri edozein bidetatik iristen

zaion unetik aurrera.

4.- Baldin eta aipatutako epeak lehentasunezko erosketarako eskubidea erabili gabe igarotzeagatik edo berariazko adostasunagatik, lehengo artikulua 11. zenbakian aurreikusitakoaren arabera, akzioak edo haien zati bat onuradun, legatadun edo oinordekoen artean banatzea baimentzen bada, haien behin betiko adjudikazioa eskritura publikoren bidez formalizatu beharko da. Eskritura hori Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio, zenbaki berean aurreikusitakoarekin bat etorriz.

5.- Administrazio Kontseiluan ezarritako prezioaren aurka azaltzeko edo erreklamatzeko eskubidea onuradun unibertsal edo partikularrei egokituko zaie, aurreko artikulua 13. zenbakian aurreikusitako eran.

12. Artikulua.- LEHENTASUNEZKO HARPIDETZE ESKUBIDEA

1.- Erabakitzen diren kapital-zabalkuntza guztietan, erabakia hartzen den unean akziodun direnek akzioak lehentasunez harpidetzeko eskubidea izango dute. Eskubide hori erabiltzeko, hilabeteko epea izango dute, partaidetza berriak hartzeko edota akzio berriak harpidetzeko Merkatal Erregistroaren Buletin Ofizialean argitaratutako iragarkitik aurrera kontatuta.

2.- Akziodunek lehentasunez harpidetzen ez dituzten akzioak publikoari eskainiko zaizkio, Administrazio Kontseiluak ezartzen duen epeaz.

3.- Batzar Nagusiaren delegazio iraunkorrez, Administrazio Kontseiluak akzioak atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du aurretik bazkide ez zen edozein harpidedunaren aurrean; horrelakoetan, akzioak hamabost egun naturaleko epean erosiko ditu, egindako harpidetza idatziz jakinarazten denetik konkatuta; ordainketa libre dauden mozkin eta erreserben kontura egingo da, prezioa harpidetzaren prezio berbera izango da, eta tituluak jarraian amortizatuko dira.

13. Artikulua.- ESKUALDAKETA IRREGULARREN ONDORIOAK

1.- Sozietateak ez die ez baliorik ez ondoriorik emango -bere aurrean- aurreko hiru artikuluetan adierazitako eskualdatzeei, baldin eta artikulua horietan jasotako arauak zorrotzasunez betetzen ez badituzte.

2.- Bazkideen, Batzar Nagusiaren edo Administrazio Kontseiluaren alde kasu horietarako ezarritako lehentasunezko harpidetza edo erosketa eskubideen erabilera baztertu gabe, aurreko arauak hautsiz egindako edozein harpidetza edo eskualdaketa baliogabea izango da Sozietate Anonimoaren aurrean.

3.- Modu irregularrean harpidetutako edo eskualdatutako akzioei datxezkien bazkide eskubideen erabilera bertan behera geratuko da eskualdatzaileak, harpidedunak edo

onuradunak lehengo artikuluetan ezarritako betekizunen bat bete gabe uzten duen egunetik aurrera. Interesatuek ezkututzen dutelako eta harpidetza, erosketa edo eskualdaketa irregularra ezagutzen ez delako Sozietateak irabaziren bat egotzi badie akzio horiei, eskualdatzaileak, harpidedunak, erosleak eta –hala dagokionean- haien oinordekoak eta legatadunek Sozietateari itzuli beharko diote eskuratutakoa, erantzule solidario gisa, Espainiako Bankuaren oinarrizko birdeskontu-interesekin, horietako edozeinek aipatutako irabaziak eskuratzen dituen egunetik aurrera.

14. Artikulua.- ESKUALDAKETA LIBREARI JARRITAKO MUGEN PUBLIZITATEA

Estatutu hauetako 10. eta 13. bitarteko artikuluetan akzioen eskualdatze libreari ezartzen zaizkion mugak Sozietatearen akzioak ordezkatzeko dituzten titulu guzti-guztietan agertuko dira, zigiluz inprimatuta.

III. TITULUA.- SOZIEATEAREN ORGANOAK

15. Artikulua.- ORGANO SOZIALAK

1.- Sozietatea gobernatzeko organoak hauexek izango dira:

a).- Akziodunen Batzar Nagusia.

b).- Administrazio Kontseilua.

2.- Indarrean dagoen legediaren arabera legezko bateraezintasun egoeran dauden pertsonak ezin izango dute inongo kargurik bete Sozietatearen administrazio, ordezkaritza, aholkularitza edo zuzendaritzan.

LEHENENGO ATALA.- AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

16. Artikulua.- BERE ERABAKIEN IZAERA ETA NAHITAEZKOTASUNA

Akziodunen Batzar Nagusia, Legearen arabera deituta eta osatuta, Sozietatearen organo soberanoa da. Beraren erabakiak, baliozkotasunez hartuak, betebeharrekoak dira akziodun guztientzat, bertaratzen ez direnak, disidenteak eta kargu-etenaldian daudenak barne sartuta.

17. Artikulua.- DEIALDIA, QUORUMA ETA KARGUEN IZENDAPENA

1.- Batzar Nagusiak, bai ohikoak eta bai ohiz kanpokoak, Legearen aurreikusitakoaren

arabera deituko dira.

2.- Ohiko edo ohiz kanpoko Batzar Nagusia baliozkotasunez eratuta egon dadin, lehenengo deialdian akziodunen gutxienez bi herenek egon behar dute, dela pertsonalki dela ordezkatuta, kapital sozialaren ehuneko berdina ordezkaturaz. Bigarren deialdian, berriz, aski izango da kapital sozialaren gehiengoa egotea, bertaratutako bazkideen kopurua zeinahi delarik ere.

Erabakiak bertaratutakoen gehiengo absolutuz hartuko dira.

Legeak edo Estatutuek gehiengo handiagoa ezartzen dutenean, kapital aldetik edo akziodun kopuru aldetik, erabaki jakin batzuetarako, bertan xedatutakoaren arabera jokatu da.

3.- Batzarren Presidentea eta Idazkaria Batzarrak zeregin horietarako izendatzen dituenak izango dira.

18. Artikulua.- BATZAR NAGUSI MOTAK

1.- Batzar Nagusiak ohikoak edo ohiz kanpokoak izango dira.

2.- Ohiko Batzar Nagusia ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan bilduko da, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintza Errege Dekretuan adierazitako puntuez erabakitzeko.

3.- Batzar Nagusiaren gainerako bilera guztiek ohiz kanpoko izaera izango dute.

19. Artikulua.- BATZAR NAGUSIETARA ETORTZEA

1.- Batzar Nagusietara etor daitezke, hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidearekin, bilera hasi baino gutxienez bost egun lehenago akzioen erregistro-liburuan akziodun gisa agertzen diren akziodun guztiak.

2.- Administrazio Kontseiluaren kide bai baina bazkide ez direnak Batzar Nagusietara etorri ahal izango dira, hitz egiteko eskubidearekin baina bozkatzeko eskubiderik gabe. Eskubide berbera izango du, hala dagokionenean, Zuzendari Nagusiak.

3.- Batzar Nagusiaren Presidenteak bazkide ez diren pertsonen presentzia baimendu ahal izango du, hitz egiteko eskubidearekin baina bozkatzeko eskubiderik gabe.

Pertsona horiek deitzen badituzte eguneko gai-zerrendaren puntu konkretu bati buruz informatzeko, puntu horren inguruko eztabaidak dirauen bitartean soilik egongo dira bileran.

4.- Jorratutakoa erregistratzen edo grabatzen laguntzeko lanak egiteko soilik, Batzarraren Presidenteak beste pertsona batzuen laguntza baimendu ahal izango du, eta, beraz, Batzar Nagusiaren esparruan egon ahal izango dira.

20. Artikulua.- BATZAR UNIBERTSALA

Berariazko deialdirik ez egon arren, kontsideratuko da Batzar Nagusia baliozkotasunez deituta eta osatuta dagoela edozein gai jorratzeko baldin eta, ordaindutako kapital guztia bertaratuta egonda, bertaratutakoek aho batez erabakitzen badute Batzarra egitea.

21. Artikulua.- BATZARREAN ORDEZKATUTA EGOTEA

- 1.- Batzar Nagusira etortzeko eskubidea duen edozein akziodun beste akziodun baten bitartez egon daiteke hor ordezkatuta.
- 2.- Ordezkapena idatziz egiaztatu beharko da Batzar bakoitzerako; horri begira, Presidenteak egokitzat jotzen dituen betekizun, berme eta formalitateak ezarri ahal izango ditu, modu orokorrean, ahalordetze horretarako.
- 3.- Akziodunak esku hartu ahal izan dezan beste bat ordezkatzuz, Estatutu hauetako 20. artikuluan aurreikusitako Batzar Unibertsala egiteko erabakia hartzerakoan, ahalordeak berariazko baimena eman beharko dio horretarako.

BIGARREN ATALA.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

22. Artikulua.- IZAERA

Administrazio Kontseilua Sozietatearen kudeaketa eta ordezkapen organoa da, neurri zabalenean, judizio barruan eta judiziotik kanpo; horri begira, muga bakarrak izango dira Batzar Nagusiak baliozkotasunez hartzen dituen erabakiak eta Legeak edo Estatutu Sozialek Batzar horri beren beregi egozten dizkioten eskumenak.

23. Artikulua.- OSAKETA ETA IZENDAPENA

- 1.- Administrazio Kontseiluak gutxienez hiru kide izango ditu eta gehienez zazpi.
- 2.- Administrazio Kontseiluko kideak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, kapital sozialaren gehiengo absolutuaren baiezko botoarekin; hala dagokionean, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintza Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera jokatu da.
- 3.- Administrazio Kontseiluaren osaketan, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatuko da, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko Legean ezarritakoarekin bat etorritz.
- 4.- Administrazio Kontseiluak bere Presidente eta Presidenteorde bat izendatuko ditu bere

kideen artean, indarreko legeriak eskatzen dituen gehiengoaren bitartez.

5.- Administrazio Kontseiluak Idazkari bat izendatuko du. Horri dagokionez, administratzailea ez den pertsona bat izendatu ahal izango du. Horrelakoetan, Idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez bozkatzeko.

6.- Kontseiluaren kidea izateko, ez da beharrezkoa izango akzioduna izatea.

7.- Kargua onartzerakoan, Kontseilari bakoitzak Kontseiluaren bileretara etortzeko eta bertan parte hartzeko konpromiso bat sinatu beharko du; horrekin batera, Sozietatearen Gobernu Korporatiboaren Kodea bere egiteko konpromisoa ere sinatuko du.

8.- Orobat, kargua onartzerakoan, Idazkariak bere gain hartuko du Administrazio Kontseiluaren funtzionamendu-arauen eta prozeduraren aplikazio egokiaren ardura, eta baita aktak egiteko, bidaltzeko eta onartzeko prozeduren ardura eta Sozietatearen dokumentazio eta liburu ofizialen zaintzaren ardura ere.

24. Artikulua.- KARGUAREN IRAUPENA.

1.- Kontseilarien karguak gehienez bost urteko iraupena du, interesatuak kargua onartzen duen unetik kontatuta. Kontseilariak mugarik gabe hautatu daitezke berriro, beste horrenbeste denbora-tartez.

2.- Kontseiluaren kudeaketa-aldian karguren bat hutsik geratzen bada, Batzar Nagusiak beraren ordezkapena egingo du, izendapenerako jarritako betekizun berdinekin.

25. Artikulua.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN BILERAK

1.- Administrazio Kontseiluaren bilerak beraren Presidenteak deituko ditu, egokitzen jotzen duenean, eta gutxienez hiru hiletik behin.

Gainera, deialdia egin beharko du Kontseilarien herenek edo Zuzendari Nagusiak idatziz eskatzen dutenean, eskari hori egitearen osteko hamabost egun naturalen barruan.

2.- Administrazio Kontseiluaren deialdi guztiekin batera, bileran jorratuko diren gaien zerrenda bidali beharko da. Gai-zerrenda Kontseiluko kide bakoitzari bidaliko zaio, bilera egin baino gutxienez hamabost egun lehenago, jorratu beharreko gaiei dagokien dokumentazioarekin batera. Gainera, gai-zerrendarekin batera adieraziko da zenbat denbora zuzenduko den gai bakoitzera.

3.- Kotsideratuko da Administrazio Kontseilua deituta eta osatuta dagoela edozein gai jorratzeko beraren kide guztiak bertan badaude eta Kontseilua egitea aho batez erabakitzen badute.

4.- Presidentea arduratuko da Administrazio Kontseiluaren bileren funtzionamendu eta

garapen egokiaz; halaber, aldizkako ebaluazioak egingo ditu organo horren eraginkortasun graduaz.

5.- Ezin administratzailek ezin du beste baten ordezkari esku hartu artikuluko 3. puntuan adierazitako erabakia hartzeko, salbu eta 26. artikuluan aipatzen den ahalordeak ordezkaria espresuki baimentzen badu horretarako.

6.- Hirugarren puntuan aurreikusitako kasuan izan ezik, Administrazio Kontseiluak aurretik bidalitako gai-zerrendan ageri diren gaiez soilik deliberatu ahal izango du.

7.- Kontseiluak prozedura bat onartuko du deialdiaren epe eta edukien eta Kontseilarien esku jarritako dokumentazioaren formaltasuna eta legezotasuna bermatzeko.

26. Artikulua.- KONTSEILURA ETORTZEA

1.- Kontseiluaren bileretara etorri ahal izango dira, hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidearekin, une horretan Kontseilari izaera dutenak.

2.- Administrazio Kontseilua formalki eratuta egon dadin, beraren kideen erdiak gehi beste bat egon beharko dira bileran, pertsonalki edo ordezkatuta, Estatutu hauetako 25.3. artikuluan aurreikusitakoa baztertu gabe.

3.- Edozein Kontseilarik bilerara etorri ez den edo ezin etor daitekeen Kontseilari bat soilik ordezkatu ahal izango du, bilera bakoitzerako idatziz egindako ahalorde baten bidez. Ordezkariak baliozkotasunez onartu ahal izan dezan Estatu hauetako 25. artikuluko 3. puntuan aurreikusitako Administrazio Kontseiluaren ohiz kanpoko bilera, ahalordeak espresuki aipatu behar du eskumen hori.

4.- Orokorrean, Administrazio Kontseiluak egokitzen jotzen dituen berme, formalitate eta betekizunak ezarri ahal izango ditu Kontseiluaren bileretan esku hartu ahal izateko xedez administratzaile batek beste bati egiten dion ahalordea egiaztatzen duten dokumentuentzat.

5.- Administratzailea ez bada, Zuzendari Nagusia bileretara etorri ahal izango da, Kontseiluaren Presidenteak gonbidatuta, hitz egiteko eskubidearekin baina bozkatzeko eskubiderik gabe.

Etortzeko eskubidea izango du kontseilua biltzeko egin duen eskarian sartuta dauden gaiak jorratzen direnean.

Administrazio Kontseiluaren Presidenteak Estatutu hauetako 19. artikuluko 3. eta 4. puntuetan aipatzen diren pertsonen presentzia baimendu ahal izango du bileretan, bertan aurreikusitako helburuetarako.

27. Artikulua.- KONTSEILUAREN DELIBERAZIOAK

1.- Kontseiluaren Presidenteak, kanpoan egoteagatik edo ezintasunagatik Presidenteordeak ordezkatuta edo, horren ezean, adin aldetik nagusia den Kontseilariak, ordezkaritza ahalordeak aztertu eta kalifikatzen ditu, bileretara etortzekoak direnen zerrenda egiten du, eztabaidak antolatu eta gidatzen ditu, hitza eman edo kentzen die bileran hitz egiteko eskubidea dutenei, eta bozketak antolatu eta gidatzen ditu.

2.- Kontseiluaren erabakiak indarreko legeriak eskatzen dituen gehiengoaren bitartez hartuko dira.

3.- Bozketen kontaketa berdinketarik gertatuz gero, Kontseiluaren Presidenteak badu kalitateko botoa.

4.- Kontseiluaren bilera bakoitzaren aktak Idazkariaren zaintzapean egongo dira. Beronek, hala dagokionean, Presidenteak erabakitako pertsona eta tresnen laguntza izango du.

Idazkaria kanpoan dagoenean edo ezin etor daitekeenean, Kontseilari gazteenak ordezkatuko du.

28. Artikulua.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ESKUMENAK

1.- Administrazio Kontseiluak eskumen hauek izango ditu:

a).- Estatutu hauek espresuki ematen dizkietenak.

b).- Batzar Nagusien erabakiak gauzatzea.

c).- Sozietatearen erabateko ordezkapena izatea era guztietako egintza eta kontratuetan.

d).- Zuzendari Nagusiaren izendatzea, Batzorde Nagusiak proposaturik

e).- Sozietatearen era guztietako pertsonala izendatzea, kontratatzea eta kanpo uztea eta beraren eskubideak eta betebeharrak ezartzea, eta baita edozein arrazoiagatik ordaindu behar zaizkion ordainsariak ere, Batzar Nagusiak adierazitako plantillaren baitan eta berak ezarritako hautaketa eta ordainketa irizpideen arabera.

f).- Sozietatearen ibilera antolatzea, zuzentzea eta ikuskatzea eta barneko erregimenaren araudia proposatzea Batzar Nagusiari, enpresaren jarduerarentzat beharrezkoa izanez gero.

g).- Helburu soziala betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak eta kontratuak egitea, eta trafiko juridikoaren berezkoak diren eta Sozietatearen helburuarekin zerikusia duten era guztietako negozioak eta operazioak gauzatzea.

h).- Sozietatearentzat komenigarriak izan daitezkeen kreditu eta mailegu operazioak adostea, eta abalak eta fidantzak ematea.

i).- Sozietatearen aurrekontuak eta programak prestatzea, egokiak izan daitezkeen baimenak eta fiskalizazioak baztertu gabe.

- j).- Sozietatearen Plan estrategikoa onartzea eta beraren garapen eta aplikazio errealaren gradua egiaztatzea.
- k).- Kudeaketa plana onartzea eta beraren gauzaperari buruzko ebaluazioak egitea, hiru hiletik behin, eta neurri zuzentzaileak hartzea, egokitzen joz gero.
- l).- Sozietatearen Gobernu Korporatiboaren Politika definitzea eta onartzea –jendaurrean jarriko da ikusgai-, eta Gobernu Korporatiboaren txostena egitea; txosten hori bi urtetik behin argitaratuko da eta kanpotik ikuskatuko da.
- m).- Sozietatearen Gobernu Korporatiboaren Politikaren aplikazio errealera zuzendutako dokumentu eta prozedura konkretuak garatzea.
- n).- Sozietatearen erantzukizun sozial korporatiboaren politika onartzea eta beraren aplikazio gradua kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak betetzea.
- o).- Sozietatearen arrisku-kontrol eta –kudeaketaren politika onartzea.
- p).- Sozietatearen kontratazio prozedurak arautzen dituzten jarraibideak onartzea.
- q).- Barneko kode etikoa onartzea; kode hori barnean adostu beharko da eta pertsonal osoari jakinarazi beharko zaio, eta salaketarako eta geroagoko kudeaketarako mekanismoak ezarriko ditu, eta baita prestakuntza programak ere. Gainera, kanpotik ikuskatu beharko da bi urtetik behin.
- r).- Kontseiluaren Erantzukizun Zibileko polizaren izenpetzea onartzea.
- s).- Kontseilari berrien prestakuntza programa eta Kontseiluko kide guztien prestakuntza etengabeko programa onartzea.
- t).- Sozietatearen aktak egiteko, bidaltzeko eta onartzeko prozedura eta Sozietatearen dokumentazio eta liburu ofizialak zaintzeko prozedura onartzea.
- u).- Kontuak, balantzeak eta kudeaketaren oroitidazkia aurkeztea urtero Ohiko Batzar Nagusiari, sozietatearen ekitaldiaren baitan, eta baita aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen gainerako dokumentuak ere.
- v).- Ohiko eta Ohiz Kanpoko Batzar Nagusien deialdia egiteaz erabakitzea. Deialdia Presidenteak egingo du.
- w).- Sozietateari dagozkion eskubide edo ekintzen erabilerari buruz egokitzen jotzen duena erabakitzea, erakunde hauen aurrean: era guztietako bulego publiko edo pribatuak, estatalak, erakunde autonomikoenak, Lurralde- edo Institutuzio-administrazioak, Erakundeak, Epaitegi eta Auzitegi arruntak eta bereziak, Auzitegi Gorena eta Konstituzio Auzitegia ere barne sartuta; halaber, egokitzen jotzen duena erabakiko du erreklamazioak eta errekurso arruntak edo bereziak jartzearen inguruan; eta auzibideetarako ahalorde orokorrak eta bereziak eman ahal izango ditu, Abokatu eta Prokuradoreen alde, egokitzen jotzen duen eran, Lege Prozesalean

aurreikusitako eskumen zabalenekin, honako hauek ere barne sartuta: kereilak berrestea, posizioak absolbitzea eta errekurtsioei uko egitea, kasazio-errekurtsioa ere barne sartuta.

x).- Sozietatearen gaiak zuzenbide pribatuko arbitrajearen mende jartzea, amore emanez edo adostasuna lortuz, ezarrita dagoen edozein modalitatearen bitartez.

y).- Sozietatearen funtsak eta ondasunak erabiltzea, erreklamatzeko, eskuratzea eta kobratzea, dagokien lekutik eta sozietateari komeni zaion lekutik. Gordailuak eratzea eta ezeztatzea, banku-kontu korranteak, kreditu-kontuak eta bestelakoak ezartzea, mugitzea eta ixtea, eskudirua eta baloreak erretiratzea, era guztietako banku-operazioak egitea erakunde espainiar edo atzerritarrekin, Banka ofiziala barne sartuta, Sozietatearen funtsak erabiltzea; kanbio-letrak eta merkataritza-efektuak igortzea, endosatzea, abalatzeko, onartzea, negoziatzea, protestatzea eta ordaintzea, eta, azken batean, banku- eta merkataritza-trafikoaren berezko operazio guztiak gauzatzea, inolako mugarik gabe.

z).- Ahalordeak ematea pertsona jakin batzuei, bete beharreko eginkizunerako eta sozietatearen interesen defentsarako egokitzen diren neurrikoak, Legeak eta Estatutu hauek ezarritako mugen baitan.

2.- Aurreko zerrenda azalpenezkoa da soilik, eta ez ditu inola ere mugatzen Administrazio Kontseiluak Sozietatearen negozio eta interesak gobernatzeko, zuzentzeko eta administratzeko dituen eskumen zabalak, hori ez bada bereziki erreserbatzen Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenentzat.

3.- Administrazio Kontseiluak Sozietatearen Zuzendari Nagusiaren eta Kontseilari baten eskuetan utzi ahal izango ditu Estatu hauetan egozten zaizkion eskumen guztiak, Legearen arabera ezin delegatu daitezkeenak izan ezik.

4.- Horretarako, Batzorde delegatuak eratu ahal izango ditu, dela iraunkorrak dela aldi baterakoak, gai konkretuak jorratzeko. Eskumen horiek erabiliz gero, eraketari buruzko erabakiak Batzorde bakoitzaren agintaldia, osaketa eta lan prozedurak islatu behar ditu.

29. Artikulua.- KONTSEILUKO KIDEEN ORDAINSARIA

Kontseilari kargua ez dago ordainduta.

HIRUGARREN ATALA – ZUZENDARI NAGUSIA

30. Artikulua.- IZAERA

Batzar Nagusiak proposatu ondoren, Administrazio Kontseiluak Zuzendari Nagusi bat izendatu ahal izango du. Kargu horretarako, ez da beharrezkoa izango akzioduna izatea.

31. Artikulua.- ESKUMENA

1.- Zuzendari Nagusiaren eskumenak Administrazio Kontseiluak baliozkotasunez eta espresuki egozten dizkionak izango dira. Administrazio Kontseiluak edozein unetan ezeztatu edo aldatu ahal izango ditu eskumen horiek.

2.- Zuzendari Nagusiak Zuzendaritza Batzorde baten laguntza izan dezake; beraren partaideak izango dira Sozietateak bere egituran dituen sailtako Zuzendariak. Batzorde horrek Zuzendari Nagusiak agintzen dizkion eginkizunak beteko ditu, eta beraren idazkaria Sozietatearen abokatua izango da.

32. Artikulua.- IRAUPENA

1.- Zuzendari Nagusiaren agintaldia mugagabea izango da, Administrazio Kontseiluak izendapena ezeztatzen duen arte iraungo baitu.

2.- Artikulu honek eta aurreko biek aipatzen dituzten Administrazio Kontseiluaren erabakiak gehiegi hartuko ditu.

IV. TITULUA. SOZIETATEAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

33. Artikulua.- EKITALDIAREN IRAUPENA

Sozietatearen ekitaldia urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasten da eta urte bereko Abenduaren hogeita hamaikan bukatzen da. Salbuespen gisa, lehenengo ekitaldia eraketaren egunean hasi zen.

34. Artikulua.- DOKUMENTU EKONOMIKOAK ETA KONTABILITATEKOAK

1.- Administrazio Kontseilua arduratuko da Legeak derrigorrezkotzat jotzen dituen edo Batzar Nagusiak ezartzen dituen liburuak, erregistroak, programak, dokumentu ekonomikoak, aurrekontuak eta kontabilitate-dokumentuak eramateaz eta formulatzeaz.

2.- Aurreko atalean aurreikusitakoa gorabehera, beren izaera subjektibo espezifikoagatik dokumentazio administratibo jakin bat bete behar duten akziodunek betekizun hori bete beharko dute.

35. Artikulua.- KONTUEN AZTERKETA

Kontuen auditoria egiteaz arduratuko diren pertsona edo erakundeen izendapena Batzar Nagusiak egingo du, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.

36. Artikulua.- MOZKINEN BANAKETA

Sozietateak mozkin likidorik izanez gero, kargu eta gastu sozialei eta legezko eta borondatezko erreserbei aurre egin ondoren, horren zenbatekoa Batzar Nagusiak onartzen dituen helburuetara zuzenduko da.

V. TITULUA. SOZIETATEAREN DEUSEZTAPENA ETA LIKIDAZIOA

37. Artikulua.- DEUSEZTAPENA

Sozietatea deuseztatuko da Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartu zuen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako arrazoiengatik.

38. Artikulua.- LIKIDATZAILEAK

1.- Likidatzailearik izendatu behar izanez gero, edozein arrazoiagatik, eginkizun horiek Administrazio Kontseiluaren partaideek bereganatuko dituzte, Batzar Nagusiak kontrakorik adierazi ezean.

2.- Kontseiluen kide kopurua bikoitia izango balitz aurreko puntuan aipatutako unean, administratzaile gazteenak ez du likidatzaile eginkizunik hartuko bere gain.

39. Artikulua.- PROZEDURA

Estatutu hauetan espresuki aurreikusten ez den guztian, Legean ezarritakoa aplikatuko da Sozietatea deuseztatzeke eta likidatzeko.

VI.- TITULUA.- ESTATUTUEN MENDE JARTZEA ETA GATAZKAK

40. Artikulua.- ESTATUTUEN MENDE JARTZEA

Akzio bakar bat harpidetzeak Estatutu honen aurreikuspenen eta Sozietatearen organoek baliozkotasunez hartzen dituzten erabaki eta akordioen mende jartzen du erabat akzioduna, akziodunaren inpugnazio eta banantze eskubideak baztertu gabe.

41. Artikulua.- ARBITRAJE KLAUSULA.

Aziodun baten edo batzuen eta Sozietatearen edo beraren organoren baten artean sortzen diren desadostasunak, dela Estatutu hauek interpretatzeari, betearazteari eta praxira eramateri dagokionez, dela organo sozialen akordio eta erabakietatik ondorioztatzen direnei

dagokienez, ekitatezko arbitrajera eramango dira, Bizkaiko Merkataritza eta Industria Ganberaren Presidentearen kontura, Legeak izapide espezifikorik aurreikusita izan ezean; horri begira, akziodun guztiek egin beharreko izapideak egin beharko dituzte konpromisoa formalizatzeko eta laudoa emititzeko, auzitegien aurreko ekintza erabiltzeari espresuki uko eginez.